

Antxiñako fotografixia

Etxaluzeko plazatxua, orain dala ehun bat urte

A purtxo bat aldatu da, bai, baiña antz emungo zotsain plazueliari, ezta? Izan be, **itturria** betikua da. Bueno, betikua edo XIX. gizaldixaren akaberakua. Kale aldian dittugun itturri gehixenen antzera, **Juan Karlos Altzaa alkatiaren** denporan jarri zan hau be 1880-1882 bittartian, **Casto Zabala** eta **Pedro Jose Astarbe** arkitektuen diseiñuarekin. Burdiñazko zatiak Parisen moldau ziran **A. Durenne de Sommevoire** enpresan. Kalegoienako itturri honek, dana dala, gaur egunian eztakon berezittasuna erakusten dau argazki zahar honetan: goixeneko partian **farol galanta**. Hor ipini zanian, etzan artian inddar elektrikorik Oñatin. **Lámpara de reverbero** izeneko sistemía ebalten ei izan orduan. Laister, baiña, etorri xakun elektrizidadia, fotografixan ikusi geikién moduan.



Ingurukaten dittuen **etxietatik bakarra** gerketan da orain **itxura horrekín**: atzian **Etxaluze** dago, XIX. mendian jaso eta 1970ko hamarkadan eretsi zana; eskumako aldian agiri danari **Korkostegiña** esaten xakon: erantsita eukan beste etxe batekin batera bota eta euren orubian **Damian Lizaur** arkitektuak oraingo bizitzaia proiektau eben 1923-1924 aldera **Arzelus familixiarentzat**; hurrengua goruntz **Renonena** lez ezauketan dogu, 1895 inguruan **Rufino Renom**-ek jaso eragin ebelako: behian **Arzuagatarrak argazki-dendia** euki euen eta etxe horixe da, hain zuzen be, igualtsu daguena gaur egun; eta horren ondokua be ondo ezaguna izan zan, ba, XX. gizaldixan: hortxe kokatu ziran urte osuan **Cenicero** tabernia lehenengo, **Urubil** tabernia ondoren, eta azken aldera **Ikastoliaren** nahiz **Laixanen tabernak** herriko jaixetan; eta **Auzotxon** (Marzelino Zelaia kalia) agiri dana **Umereztarren etxia** zan: banasta- nahiz ardau-negoziuan ziharduen familixiarena.

Baiña **polittena** eta interesantiena, akaso, kalia agerketan diran **herritarren irudixa** dogu: **zelako jantzixak!** emakumienak batez be; umien erropak be majo aldatu dira. **Dantzan** dihardue sueltuan emakume eta gizon batzuk. Horma kontrán dago **dultzaiñerua** eta bere eskuman ate onduan **atabalerua**: Zeintzuk ete dira musikuok? Nahiz eta erabateko segurantzariarik ez euki, **Martin Iñurritegi Martiñola** eta **Tomas Uribarri Danborrerotxo**, txantxikuar mitikuak, izan leikiela pentsaitten dogu. Hantxe inguruan bizi ziran bata zein bestia. Ia norbaitte argiketan doskun zalantzia. Emun dittugun datuak kontuan izanda, fotografixiak gutxienez ehun urte eukiko dittuela uste dogu, gehitxuago ezpada.

J. E

Argazkixa Oñatiko udal artxibuan gordetan da eta Gomendio-Lizaur fondokua izango da ziurrenik. Eskerrak euren laguntzaiagatik Izar Salaberri artxibozaiñari, Joxe Mari Urzelai eta Xabier Zelaiari.

Fan zan abenduko zenbakixan gogoratu gittuan etxe berezixen artian bat aittaketia ahaztu xakun, eta ez botata edo ezkutuan eguelako: **Osasun-billa** (edo **Osasun-villa**) izenekua. Pepe Zulueta oñatiarrak jaso eragin eben Torrealdean 1929 inguruan Txiletik erdi gaixorik jaixoterrira etorri zanian. Arkitektua, beste askotan letxe, Damian Lizaur izan zan. Peperen andria Josefita Luzar zan eta familixa horretakuak ebalí euen gerora. Orainddiok lehengo lekuan dago, Zumeltzegiko torriaren onduan, baiña aldatuta. Urte batzuk hutsik egon ondoren, saldu egin euen Luzartarrak eta jabe barrixak beste itxura bat emun otsan eta izena kanbixau. Milla esker argibidiongatik Iñaki Ormazabal eta Jabier Galartzari.